



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Mozambique eta M12

Denok izan dugu azken egunetan Mozambiqueko hondamenaren berri. Hondamen honek eraginda, Espainiar estatuak Mozambikeri bere kanpo zorra «barkatu» ei dio. Zalan-tzarik gabe esan daiteke, Espainiar estatuak ez zukeela pauso hori eman izango azken urteetan hamaika gi-zarte erakundek hainbat eta hainbat mobilizazio bultzatu ez balituzte.

Testuinguru horretan ulertu behar da datorren iganderako, martxoak 12, hainbat herritan (Hego Euskalerrian gutxienez 30 herritan antolatuko da) Gobernuak Kanpoko Erakunde eta bestelako taldeek antolatu dugun «Kanpo Zorraren Ezabapenerako Herri Kontsulta». Asko izan dira herri kontsulta honek zertarako balioko duen galdetu didatenak. Mozambiqueko kasua da nire erantzuna. Era honetako herri mobilizazioek ez dute berehalako ondorio konkreturik izaten, baina gizartearen babes sendoa lortzen badute gobernuen jokamoldeak baldintzatzen irits daitezke.

Ziur asko espainiar Gobernuak Mozambikeri kanpo zorra ezabatuko duela jakin duen jende gehiena ados dago neurri horrekin. Baina horiei guztiei esan nahi nieke ez dela nahikoa telebistan entzundakoa neurri hauekin poztea. Herrialde txiroei kanpo zorra ezabatu behar zaiela us-te duenak plazaratu egin behar du iritzi hori, nolabait agintariei jakinarazi behar die onartezina dela egungo kanpo zorraren egoera. Horregatik gonbidatzen ditut neurri honekin ados dauden guztiak hurbil daitezela martxoak 12an kanpo zorra ezabatzearen alde ipiniko diren hautestontzietara beren borondate hori plazaratzera.

Ez dezagun itxaron beste herrialde bat hondamendian murgilduta egon arte bere kanpo zorra ezabatzeko. **Beñat Arzadun** • (Harreman GGGK-ko kidea)

Nazioartea eta estatuartea

Sarri askotan ez dugu asmatzen berbeekin, zeintzuek aukeratu beharko baikenituzke deskripzio egokiak egiteko, eta orduan errealtatea oker pintatzen dugu. Euskal Herriaz, adibidez, esaten dugu ez dagoela errekonozitua nazio gisa nazioartean, eta hor dago duda barik gure arazoaren muina, baina, internazionalista izanik, esan beharko genuke ez gaudela errekonozituak estatuartean, estatuen arteko itunetan edo direnak di-relakoetan. Horrela esanda askoz hobeto definitzen edo deskribatzen dugu mundu honetako nazio gehien, esango nuke nik, egoera benetakoa, oso hurrun dagoena euren garapen integralerako kondizioetatik. Arazo oso larria benetan, zeren estatuak Maquialvelok, «gestu guttiz», deskribatutako eredu klasizistan eraikiak baitaude, indar militarren bitartez. **Roman Garmendia** • SORALUZE (GIPUZKOA)

Orioko Arraun Elkarteak, berriz ere nabarmen

Arraunean ohizkoa den bezala, Oriok nabarmen geratu behar du beti. Oraingoan ere nabarmen geratu da; are gehiago, lotsagarri. Aita Klaudio Etxeberria hiltzean doluminak, lore sortak, eskelak... jaso ditugu aita patri lanak egin zituen eta egin ez zituen hainbat arraun elkartetatik. Oriotik ez, jakina. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu hain mai-

tea dugun Orioko Arraun Elkarteak zuzendaritzari.

Pentsa, aita Ondarroako Arraun Elkartearen ari zenean debekatu egiten zioten Orioko Arraun Elkartera sartzea, Ondarroakoek bertan sartzeko baimena zuten arren. «Ez gaizki hartu baina Claudio Gorriak ezin du Orioko Arraun Elkartera sartu», esan zieten Ondarroakoei. Gordina bezain egiazko gertaera. Uka dezala bestela Jose Mari Olasagastik. Hori guztia aintzat hartuta Orioko Arraun Elkartearen instalazioak Udalarenak, denonak, direla.

Ez dugu uste aitzak halako tratua merezi zuenik Orioko Arraun Elkartearen aldetik: duela urte asko Orioko traineruko patroia izan zen eta makina bat bandera irabazi zituen. Geroztik ez zioten beste aukerarik eman. Guretzat oso mingarria da Arraun Elkarteak aitarekin izan duen harremana, bai hil aurretik, bai hil ondoren ere. Are gehiago ikusita elkarrekin utzi duten batzuk zein ondo tratatzen dituzten. Ez dugu uste beste inor gure aita zena baino okerrago tratatu dutenik.

Aurreko samin eta kritika guztiak azaldu ondoren, eskerrak eman nahi dizkiogu Orioko herriari eta, bereziki, Claudio Etxeberriaren heriotzaren aurreko eta ondorengo egun gogorretan beren samina adierazi ziguten lagun eta elkarrekin guztiak: Getaria, Zumaia, Tolosa, Ondarroa, Arkote-Bermeo, Castro, Kaiku, Pasai Donibane, Pasai San Pedro, Lasarte... Eskerrak asko guztiei. Orioko Arraun Elkarteak, ordea, beste behingoz erakutsi du —guri behintzat bai— bere gizalege berezia. Lotsak, gorritu ez, horitu egin beharko lituzke bertako arduradunak. **Raquel Etxeberria Esnal** • (Etxeberria-Esnal sendiaren izenean) ORIO (GIPUZKOA)

galdeiozu...



Odile Kruzeta

EUSKADI IRRATIKO ZUZENDARIA

Zergatik dira irratiko programazio guztiak hain berdintsuak? Ez al dago irudimen falta, proiektu berrien beharra?

Mikel Aizpuru [Zarautz]

■ **BAI**, imaginazio falta oso gaitz zabaldua da gaur gaurkoz. Irrati programarik gehienak ia klonikoak dira. Telebista saiorik gehienak, egunkaririk gehienak edo herri aldizkaririk gehienak diren bezalaxe. Jakina, ez da erraza 24 orduko programazioa betetzea, eguna joan eta eguna etorri, atsedetik gabe. Bestalde, irratsaioen formula ia guztiak asmatuta daude. Non dago, beraz, gakoa? Kazetariengan, komunikatzaileengan, egilearen irudimenean, lanerako gogoan eta bizipozaren. Pertsonen baitan bakarrik dago egun bakoitzari, saio bakoitzari eguneko tentsio informatiboa, eguneko kolorea, umorea eta txispa ateratzeko ahalmena.

Martxoaren 14tik aurrera
Jonan Fernandez

• ELKARRIKO KOORDINATZAILEA
izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

ELIZAK

BARKAMENA ESKATUKO DU
EGINDAKO BEKATUENGATIK...

